



**INTEGRAZIO SOZIALEKO
TEKNIKARIAREN
LAN-POLTSA BAT ERATZEKO
DEIALDIAREN OINARRIAK**

INTEGRAZIO SOZIALEKO TEKNIARIAREN LAN-POLTSA

1.- SARRERA

Gehilan 2000 garapen sozioekonomikoarekin konprometitutako aholkularitza enpresa bat da. Gure helburu nagusia langileen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektuak proposatu eta lantzea da. **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak 160000030 zenbakiaren bidez baimendutako Lan Agentzia** garen heinean, gure hautaketa-prozesu guztietan lanerako berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak aplikatzen ditugu, beste batzuen artean. Printzipio horiek bermatzeko, halaber, gure lan eskaintzak zabaltzen ditugu Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, Gehilan 2000 Erakunde Laguntzaile egiaztatua baita.

Gainera, gure erronka nagusietako bat langabezia dauden profesionalen lana aurkitzen laguntzeko erraztasunak ematea da. Horretarako, Orientazio Profesionala, Eskumenen Prestakuntza eta bestelako aspektuak lantzen ditugu, lan-eskaintzen bilaketa aktiboan laguntzen dugun bitartean.

2.- KONTRATUAREN XEDEA ETA INFORMAZIO OROKORRA

Monitore lan-poltsaren hautagai ezaren, Mankomunitatearen testuinguruaren eta premiazko eta aparteko aldi baterako monitoreen kontratazioak egiteko behararen aurrean, Mankomunitatea integratzen dituzten monitore faltak eta egungo Ranzariko lan-poltsan dauden hautagaien faltak beharizan puntualak estaltzeko ez egiturazko pertsonalaren beharizana isladatzen du Ranzariko zentru guztietako eraginkortasuna eta antolakuntza hobetzeko asmoz eta ezintasun psikikoa duten erabiltzaileen beharrezko eta presako bidezko arreta jasotzeko asmoz, Lorezaintza-zerbitzuan izan ezik bere espezialitateagatik Lorezaintetako monitore berezko Lan-Poltsa badu eta. Ranzari monitore plaza ezintasun psikikoa duten pertsonekin lan egiteko denez, eta persona hauek kaltebera eta sentibera berezia dituztenez, hautagaien iraunkortasuna diziplina anitzako Ranzari taldearen irizpideei lotuta doa.

Enplegu Poltsa horretan parte hartzeko, Gehilan 2000 erakundearen webgunean alta eman beharko da: www.gehilan2000.com / *empleo* / *introducir CV*. Gainera, seleccion@gehilan2000.com helbidera bidali beharko da curriculum eguneratua, INTEGRAZIO SOZIALEKO TEKNIKARI gisa metatutako esperientzia zehatz-mehatz azalduz. Gainera, oinarriotan azaldutako gainerako baldintzak bete beharko dira.

Emaitzak eta prozesuaren faseen inguruko informazioa www.gehilan2000.com webgunearen bidez soilik argitaratuko dira, *Procesos de Selección Abiertos* atalean.

3.- PARTE-HARTZAILEAK HAUTATZEKO BALORAZIO BATZORDEA

Gehilan 2000 erakundeko teknikariek osatutako Balorazio Batzorde batek burutuko du hautaketa. Gure erakundea aditua da Udal eta erakunde publikoetarako enplegu programak abiarazten.

Gehilan 2000 erakundeak dokumentu honetan azaldutako hautaketa-prozesua abiatuko du. Profila betetzen duten eskaeren artean, aurkeztutako dokumentazioaren baremazioa egin eta hautaketa-probak garatuko ditu, oinarriotan ezarritako irizpideen arabera.

Batzordeak eskumena izango du planteatzen diren zalantzak argitu eta prozesuaren garapen egokirako beharrezko akordioak hartzeko. Hala badagokio, akatsak zuzendu edo/eta erreklamazioak egiteko epe bat emango du, behin hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta.

4.- PARTE-HARTZAILEEN EZAUGARRIAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, adierazten diren epe eta moduen arabera, eta baldintza hauek bete beharko dira:

- a. 18 urte beteta izatea eta derrigorrez erretiroa hartzeko adinera ez heltzea.
- b. Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herrialderen bateko herritar izatea, edo, hortik kanpoko edo atzerritarren kasuan, lan-baimena eta Espainian legez bizitzeko baimena izatea.
- c. Honako tituluren bat izatea edo eskaera eginda edukitzea: Integrazio Sozialeko arloko Goi mailako Tituloa edo baliokidea den antzinako planen bat.
- d. Indarreko B gida-baimena.
- e. Egungo Ranzari monitoreetako lan poltsaren parte **ez izatea**.
- f. **Gehilan 2000 webgunean alta ematea**, www.gehilan2000.com / *Empleo / Introducir CV / Registrarse*, atal guztiak betez (datu pertsonalak, prestakuntza, laneko esperientzia eta abar); eta, era berean, curriculum eguneratua bidaltzea, aurreko atalean aipatutako guztia kontuan hartuz, honako helbidera: selección@gehilan2000.com.
- g. Gehilan 2000 erakundearen bulegoetan aurkeztu beharko da: Kalean Jenaro Oraaren, 3, Santurtzin. Epea: en **OTSAILAK 11 ETA 22 bitarteko epean** (biak barne) eta 10:00etatik 15:00etara eta honako dokumentazioa aurkeztu behar da, **DERRIGORREZ:**

- ✓ NAN/AIZ fotokopia,
- ✓ Gida-baimenaren fotokopia,
- ✓ Eskatzen den titulazioaren fotokopia konpultsatua (Integrazio Sozialeko Goi mailako Tituloa edo baliokidea den antzinako planen bat).
- ✓ Lan bitzta eguneratua (ez da onartuko antzinako lan bizitzarik).
- ✓ Lan esperientzia egiaztatzen duten Kontratuen Fotokopiak. MERITUEN BALORAZIO gisa kontuan hartuko dira.
- ✓ Errola ziurtagiri eguneratuaren fotokopia.

GARRANTZITSUA: Ezarritako epean honako dokumenturen bat ez aurkeztekotan, pertsona horren inguruko informazioa hautaketa prozesutik kanpo utzi eta ezeztatu egingo da.

OTSAILAK 25EAN www.gehilan2000.com webgunean argitaratuko da, *Empleo / Procesos de Selección Abiertos* atalean, hautaketa-prozesuan onartutako pertsonen zerrenda. Zerrendan agertzen ez diren pertsonak prozesutik kanpo geratu direla ulertuko da, eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik.

5.- HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA

Gehienez ere **15 puntu** lortu ahal izango dira.

5.1. LEHIAKETA FASEA: MERITUEN BALORAZIOA

Gehienez ere **10 puntu** lor daitezke eta poltsarekin erlazionatutako lan-esperientzian oinarrituko da.

Lan-esperientziari dagokionez:

- 6 hilabeteko edo hortik gorako esperientzia *Lorezaintza Monitore gisa Enplegu Zentro Berezietan, Zentro Okupazionaletan, Laneratze eta Gizarteratze Zentroetan edo aniztasun funtzionala duten pertsonen artean emateko zentroetan*. Lan egindako 6 hilabeteko tarte bakoitzeko puntu bat emango da, gehienez ere 8 puntura arte. (6 hilabete 180 egun direla kontuan hartuko da).
- 6 hilabeteko esperientzia edo hortik gorakoa Integrazio Sozialeko Teknikari gisa. Lan egindako 6 hilabeteko tarte bakoitzeko 0,5 puntu emango da, gehienez ere 2 puntura arte. (6 hilabete 180 egun direla kontuan hartuko da).

Ebaluazio Batzordeak hautagaien merituak puntuatuko ditu. **Gutxienez 4 puntu** beharko dira elkarriketa pertsonalaren fasera pasatzeko. Jasotako eskakizunak nahikoak ez balira, Gehilan 2000k 4 baino baxuago den puntuazioa ezarri leike hautaketa prozesuko hurrengo fasean hautagai kopuru nahikoa dagoela ziurtatzeko.

OTSAILAREN 26AN Gehilan 2000 erakundearen webgunean argitaratuko da, *Empleo / Procesos de Selección Abiertos* atalean, **Elkarrizketa Faserako onartutako pertsonen zerrenda**. Zerrendan agertzen ez diren pertsonak prozesutik kanpo geratu direla ulertuko da, eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

5.2. ELKARRIZKETA FASEA.

Fase horretarako, elkarrizketarako onartutako pertsonekin harremanetan jarriko gara eta **OTSAILAK 27, 28 ETA MARTXOAK 1 bitartean** hitzordua emango zaie. Behin hitzordua emanda, ez da aldaketarik onartuko.

Fase honetan **5 puntu** lortu ahal izango dira, gehienez.

MERITUEN BALORAZIO FASEAN 4 puntuko edo hortik gorako puntuazioa lortu duten pertsonen soilik parte hartuko dute elkarrizketa fasean. Esan behar da Gehilan 2000 erakundeak beheko muga bat ezarri ahal izango duela, aurkeztutako eskaera kopurua ez bada nahikoa 20 pertsonako zerrenda bat osatzeko. Posizio horretatik beherako pertsonen erreserba egoerako poltsa osatuko dute. Honako **jatorrizko dokumentuak** ekarri beharko dira proba horretara:

- ✓ NAN/AIZ
- ✓ Gida-baimena.
- ✓ Titulazio akademikoa.

GARRANTZITSUA: Ezarritako epean honako dokumenturen bat ez aurkeztekotan, pertsona horren inguruko informazioa hautaketa prozesutik kanpo utzi eta ezeztatu egingo da.

15 minutu inguruko proba izango da. Erdi egituratua eta gidatua izango da. Galdera sorta zentral bat erabiliko da elkarrizketa guztietarako, baina hautagai desberdinekin sortutako interakzioaren arabera aspektuak lantzeko aukera ere egongo da.

Elkarrizketaren xedea pertsona hori *Lorezain Monitorean* lan-poltsara ondo egokitzen den erabakitzea izango da, irizpide eta ponderazioak kontuan izanik:

- | | |
|--|---------|
| ✓ Baliabide pertsonalak | 1 puntu |
| ✓ Gaitasun sozialak | 1 puntu |
| ✓ Gatazka ebazpena | 1 puntu |
| ✓ Egonkortasun emozionala eta autokontrola | 1 puntu |
| ✓ Gatazkak konpontzeko tresna pertsonalak, negoziazioa eta abar. | 1 puntu |

6.- HAUTATUTAKO PERTSONEN ZERRENDA

Azken sailkapenaren ordena lehiaketa fasean eta elkarrizketa fasean lortutako puntuazioen baturaren arabera izango da.

Puntuazio berdinketa kasuetan, honakoek izango dute lehentasuna:

- 1.- Enplegu Zentro Berezi, Zentro Okupazional, Gizarteratze eta Laneratze Zentro edo aniztasun funtzionala duten pertsonentzako bestelako arreta zentroetan Monitore gisa esperientzia handiena daukana.
- 2.- Berdinketa kasua mantentzekotan, prestakuntza osagarri gehien daukan pertsona, Poltsako lanpostuari dagokionez.
- 3.- Berdinketa mantentzekotan, Elkarrizketa fasean puntuazio onena lortu duen pertsona.
- 4.- Berdinketa mantentzekotan, langabezian denbora gehien daraman pertsona.

Behin-behineko zerrendan hautagai bakoitzaren puntuazioa eta poltsaren barruko ordena agertuko da eta Gehilan 2000 erakundearen webgunean argitaratuko da, www.gehilan2000.com, **MARTXOAK 5, ASTEARTEA**. Hala nahi duten pertsonak beren puntuazioak eta ebaluazioak berrikusteko aukera izango dute, Gehilan 2000 erakundearen bulegoetan, aldez aurretik hitzordua eskatuz. **Behin betiko zerrenda MARTXOAREN 7AN, OSTEGUNEAN, argitaratuko da**

7.- HAUTAKETA-PROZESUAREN KRONOGRAMA:

- **2019ko Otsailaren 11tik 22ra:** Hautagaitzak jasotzea eta eskatutako baldintzen araberrako hautaketa egitea, Gehilan 2000 erakundearen bulegoetan dokumentazioa entregatzea.
- **2019ko Otsailaren 25ean:** Gehilan 2000 erakundearen webgunean argitaratuko da, *Empleo / Procesos de Selección Abiertos* atalean, hautaketa-prozesurako onartutako pertsonen zerrenda.
- **2019ko Otsailaren 26an:** Gehilan 2000 erakundearen webgunean argitaratuko da, *Empleo / Procesos de Selección Abiertos* atalean, Elkarrizketa Faserako onartutako pertsonen zerrenda.
- **2019ko Otsailaren 27tik Martxoaren 1ra:** Elkarrizketa pertsonalak.
- **2019ko Martxoaren 5ean:** Gehilan 2000 erakundearen webgunean Lan Poltsaren behin-behineko zerrenda argitaratzea.
- **2019ko Martxoaren 7an:** Gehilan 2000 erakundearen webgunean Lan Poltsaren behin betiko zerrenda argitaratzea.

8.- OINARRIAK ONARTZEA

Poltsa honetan parte hartzeak oinarriok berariaz onartzea dakar. Gehilan 2000 erakundeak oinarriotan jaso gabeko edozein aspektu arautzeko eta jasotakoa interpretatzeko eskumena izango du.

9.- KALITATEA, DBLO ETA BERDINTASUNA

Gehilan 2000 erakundeak ISO 9001: 2015 ziurtagiria dauka erakunde publiko zein pribatuentzako aholkularitza, prestakuntza ez arautu eta pertsonentzako enplegu zerbitzuen inguruan. Gainera, kalitatea elementu bereizle gisa aplikatzen du bezeroen eta orokorrean,

gizartearen beharrianak asetzeko, eskaera eta erronkei erantzun arina eta eraginkorra emanez.

Era berean, oinarri horiek genero ikuspegia kontuan izanik diseinatu dira, hautaketa-prozesuaren garapen-faseetako bakoitzean.

Gehilan 2000 erakundeak Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datuen Babeserako Araudi Orokorrean (UE 2016/679) jasotakoa betetzen du.